



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
☎ 948 634 192
arantza.udala@arantza.eu
www.arantza.eu

2015EKO MAIATZAREN 14KO BILERAREN AKTA

Organoa: Udalbatza.
Batzarra: Ohiko bilera.
Deialdia: Lehenengoa.
Eguna: 2015.05.14.
Ordua: Arratsaldeko 19:00etan.
Tokia: Herriko Etxeko areto nagusia.

Bertaratuak:

Alkatea: Ander Almandoz Indacoechea jn.
Zinegotziak:
Koldobike Gorostiza Uriguen and
Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jn.
Teodoro Pikabea Zubieta jn.
Jose Ignacio Madariaga Vergara jn.
Mikel Leiza Etxeberria jn. (4. puntuan sartu da).

Bertaratu ez direnak:

Inor ere ez.

Idazkaria:

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

Aztergaiak:

- 1.-Azkeneko akten onespena.
- 2.-2014ko kontuak: behin betiko onespena.
- 3.-Baztan-Bidasoa eskualdean turismoa garatzeko lankidetzaren hitzarmenaren onespena.
- 4.-M.Esther Burlada Arocena andrea: oihan probetxamendu eskaera.
- 5.-M.Esther Elizondo Lucambio andrea: oihan probetxamendu eskaera.
- 6.-Telebista antenaren moldaketa.
- 7.-Iñaxio Larretxea Errandonea jauna: bere semea ehiza barrutiko kidea izateko eskaera.
- 8.-Vicente Arocena Andueza jauna: bere semea ehiza barrutiko kidea izateko eskaera.
- 9.-Meakako bidearen moldaketa.
- 10.-Larretako bidearen espedientea.
- 11.-Alkatearen ebazpenak.
- 12.-Eskaerak eta galderak.

1.-AZKENEKO AKTEN ONESPENA.

2015eko apirilaren 17an eta 2015eko apirilaren 27ean egindako bileren aktak ikusi ondoren, aho batez, ONARTU DITUZTE.

2.-2014KO KONTUAK: BEHIN BETIKO ONESPENA.

Arantzako Udalak, 2015eko apirilaren 17an egindako bileran, erabaki zuen 2014ko Kontu Orokorrei aldeko txostena ematea eta espedientea 15 egunetz jendaurrean paratzea, interesatuek aztertu eta bidezko erreklamazioak aurkezteko.

Ikusirik jendaurreko epean ez dela alegaziorik eta erreklamaziorik aurkeztu.
Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 242. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) 2014ko kontuen espedientea behin betikoz onartzea.
- 2) 2014ko kontuen espedientea Nafarroako Gobernura bidaltzea.

3.-BAZTAN-BIDASOA ESKUALDEAN TURISMOA GARATZEKO LANKIDETZA HITZARMENAREN ONESPENA.

Gaia mahai gainean utzi da hobeto aztertzeko.

4.-M. ESTHER BURLADA AROCENA ANDREA: OIHAN PROBETXAMENDU ESKAERA.

M. Esther Burlada Arocena andreak, Alzaran alderdian, pinuen probetxamendua egiteko eskaera ikusirik (matarrasa egiteko, 6. poligonoko 32.A lur zatian).

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) M. Esther Burlada Arocena andreari eskatutako oihan probetxamendu eskaerari aldeko txostena ematea, probetxamendua hasi aurretik balorazioaren %15eko fidantza aurkezteko baldintza pean.

2) Eskaera Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentura bidaltzea.

3) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.

5.-M. ESTHER ELIZONDO LUCAMBIO ANDREA: OIHAN PROBETXAMENDU ESKAERA.

M. Esther Elizondo Lucambio andreak, Ibina alderdian, 2 haritzen probetxamendua egiteko eskaera ikusirik (1. poligonoko 81.lur zatian).

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) M. Esther Elizondo Lucambio andreari eskatutako oihan probetxamendu eskaerari aldeko txostena ematea, probetxamendua hasi aurretik balorazioaren %15eko fidantza aurkezteko baldintza pean.

2) Eskaera Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentura bidaltzea.

3.) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.

6.-TELEBISTA ANTENAREN MOLDAKETA.

Ikusirik herriko antenan egiteko beharrezko diren lanak (2.780,00 euro).

Kontuan hartuz 2015eko aurrekontuan ez dagoela partidarik hori burutzeko.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aurrekontuen eta gastu publikoaren alorretan garatzen duen irailaren 21eko 270/1998 Foru Dekretuaren 33. artikuluan xedatuari jarraikiz.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) 2015eko aurrekontuaren 2. aldaketa egiteko espedientea hasiera batean onestea.



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
📠 948 634 192
arantza.udala@arantza.eu
www.arantza.eu

2)Espedientea Idazkaritzan egonen da ikusgai hamabortz egun baliodunean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, bizilagun edo interesdunek azter dezaten eta egokiak iruditzen zaizkien erreklamazioak aurkez ditzaten.

7.-IÑAXIO LARRETXEA ERRANDONEA JAUNA: BERE SEMEA EHIZA BARRUTIKO KIDEA IZATEKO ESKAERA.

Ikusirik Inaxio Larretxea Errandonea jaunak aurkeztutako idatzia eta dokumentazioa, bere semeak ehiza kotoko kidea izateko aukera duen edo ez erantzuteko eskatuz.

Ikusirik Arantzako Ehiza-Barrutirako (NA-10120 matrikula) baldintza pleguaren 2. puntua, non adierazten duen Batzorde Paritario Misto honen xedeak honako hauek direla: esleipen honen jarraipena egitea, sor litezkeen gorabeherak konpontzea eta baldintza hauek interpretatzea. Batzordea honakook osatuko dute: ehiztarien elkarteko 4 ordezkari, eta Arantzako Udalbatzaren 4 ordezkari. Udal ordezkariak agintaldi bakoitzean izendatuko dira.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1)Gaia Batzorde Paritarioan aztertzeo uztea.

8.-VICENTE AROCENA ANDUEZA JAUNA: BERE SEMEA EHIZA BARRUTIKO KIDEA IZATEKO ESKAERA.

Ikusirik Vicente Arocena Andueza jaunak aurkeztutako idatzia eta dokumentazioa, bere semeak ehiza kotoko kidea izateko aukera duen edo ez erantzuteko eskatuz.

Ikusirik Arantzako Ehiza-Barrutirako (NA-10120 matrikula) baldintza pleguaren 2. puntua, non adierazten duen, Batzorde Paritario Misto honen xedeak honako hauek direla: esleipen honen jarraipena egitea, sor litezkeen gorabeherak konpontzea eta baldintza hauek interpretatzea. Batzordea honakook osatuko dute: ehiztarien elkarteko 4 ordezkari, eta Arantzako Udalbatzaren 4 ordezkari. Udal ordezkariak agintaldi bakoitzean izendatuko dira.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1)Gaia Batzorde Paritarioan aztertzeo uztea.

9.-MEAKAKO BIDEAREN MOLDAKETA.

Alkateak jakinarazi du Meakako bidearen egoera larria dela eta moldatzeko lanak esleitu behar direla lehenbailehen.

Gaineratu du gonbidapenak bidali direla hainbat enpresei eta maiatzaren 15a dela azken eguna proposamenak aurkezteko.

Koldobide Gorostiza andrea joan da bileratik.

10.-LARRETAKO BIDEAREN ESPEDIENTEA.

Arantzako Udalak, 2015eko apirilaren 17an egindako bileran, erabaki zuen Jose Antonio Bereau Macicior jaunari eta M. Jesus Echeverria Agesta andreari jakinaraztea prozedura segitzeko bi baldintzak bete behar direla eta horren adostasuna adierazteko 2015eko maiatzaren 13a arteko epea ematen zaiela. Horiek ez badira onartzen hasitako mugaketa espedientearekin jarraituko dela ohartaraztea.

Ikusirik ez dela erantzunik jaso jarritako epean.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Mugaketa espedientearekin jarraitzea.

11.-ALKATEAREN EBAZPENAK.

Alkateak azken bileratik emandako ebazpenen berri eman du (2015eko 29. ebazpenetik 35. ebazpena arte).

12.-ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez dira izan

Gai zerrendatik kanpo eta, legeak eskatzen duen gehiengoa izanik, ondorengo gaiak eztabaidatu dira:

13.-PASCUAL OSCOZ GONZALEZ JAUNA: OIHAN PROBETXAMENDU ESKAERA.

Pascual Oscoz Gonzalez jaunak, Elbiztegi alderdian, akazien probetxamendua egiteko eskaera ikusirik (entresaka, 4. poligonoko 100. lur zatian).

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Pascual Oscoz Gonzalez jaunari eskatutako oihan probetxamendu eskaerari aldeko txostena ematea, probetxamendua hasi aurretik balorazioaren %15eko fidantza aurkezteko baldintza pean.

2) Eskaera Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentura bidaltzea.

3) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.

14.-OSASUN ZERBITZUARI BURUZKO MOZIOA.

Ikusirik osasun zerbitzuari buruzko mozioa,

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Arantzako Udalak Nafarroako Gobernua premiatzen du drogamenpekotasunari buruzko programei eta udal planei eta osasunaren prebentzioari eta sustapenari zuzendatutako kontusailak, eta halaber, IHESaren arloan lanean diharduten IGEekiko hitzarmenen ingurukoak eta gutxiengo etnikoen arloko programak indartu ditzan; halako moldez, datorren legealdian programa horietarako Nafarroako Aurrekontu Orokorren baitan aurreikusitako zenbatekoak eskuratu ahal ditzagun, erreferentziatzat gutxienez 2011. urtekoak hartuta.

2) Arantzako udalak Nafarroako Gobernua premiatzen du, finantza-erakunde pribatuekiko hitzarmenen bidez diru laguntzak privatizatu ez ditzan, eta administrazio publikoa den heinean populazioak zerbitzu publiko kalitatezkoak jasotzen jarrai dezalako erantzukizuna mantentzen.

15.- JORGE BEREAU MACICIOR JAUNA: BERE SEMEA EHIZA BARRUTIKO KIDEA IZATEKO ESKAERA.

Ikusirik Jorge Bereau Macicior jaunak aurkeztutako idatzia, bere semeak ehiza kotoko kidea izateko aukera duen edo ez erantzuteko eskatuz.



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
☎ 948 634 192
arantza.udala@arantza.eu
www.arantza.eu

Ikusirik Arantzako Ehiza-Barrutirako (NA-10120 matrikula) baldintza pleguaren 2. puntua, non adierazten duen, Batzorde Paritario Misto honen xedeak honako hauek direla: esleipen honen jarraipena egitea, sor litezkeen gorabeherak konpontzea eta baldintza hauek interpretatzea. Batzordea honakook osatuko dute: ehiztarien elkarteko 4 ordezkari, eta Arantzako Udalbatzaren 4 ordezkari. Udal ordezkariak agintaldi bakoitzean izendatuko dira.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1)Gaia Batzorde Paritarioan aztertzeko uztea.

Bertzerik gabe, gaueko 21:00ak izanik, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAK,
Ander Almandoz Indacoechea.



